

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011 ko otsailaren 15a. VIII. urtea. 2.174. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

## Napoleonen armadaren aurkako guda gogoratuz alardea egingo dute Tolosan

Andia kultur elkarte eta Tolosako Udala dira antolatzaileak; ekimena ekainaren 12an ospatuko da eta ehun lagunek hartuko dute parte

1813an Tolosan 45.000 soldaduk hartu zuten parte frantses tropen eta hainbat herrialdeetako gerlarien arteko batailan ◊3



Tolosan 1813an izan zen guda gogoratuko dute ekainaren 12an. LURKIZU



S.GOMEZ

### → Tortura gaitzetsi dute Zizurkilen.

Herenegun bete ziren 30 urte Joxe Arregi zizurkildarra hil arte torturatu zutenetik. Torturaren aurkako eguna zela eta mendi martxa egin zuten lehenik, eta ondoren, ekitaldia egin zuten herriko plazan. ◊4

### Anjel Arrospide urrezko mailako aizkora txapelketako finalean

Binakako txapelketan Mugerza II. arekin osatzen du bikotea leaburuarrak; bigarren finalerdia asteburu honetan jokatu da Espejon ◊7

### Arrate Plazaola

Onkologoa

«Zortzi emakumetatik bati bularreko minbizia izatea tokatuko zaio»

Medikuak Alegiako kultur etxean hitzaldia emango du gaur, 17:00etan

Elkarrizketa ◊3

195.000 €

IBARRA

**Promozio berria**

Sustatzailea:  
Epergain  
Eraikuntzak eta Promozioak, S.L.  
Eraikitzen du:  
Aburuza  
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • [www.aburuza.com](http://www.aburuza.com)

## Baso mugarratuak



### Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologia

**B**asoeak, besteak beste, egurraren ematen digute, egur hau lortzeko noski zuhaitza moztu egin behar da eta hemen arazotxo bat dugu, zuhaitz honek ez duela berriro egurririk emango, hilda baitago! Ba al zenekiten ordea iraganean Euskal Herrian, basoari egurra lortu eta aldi berean zuhaitzak bizirik uzten zituenez mozketa teknika bat bazela? Eta ba al zenekiten gaur egun berriro, mozketa metodo hau martxan ipini nahi dutela? Mozketa mota honi, mugarratzea edo trasmoztea deritzo.

Egun hauetan HITZA irakurri baduzue, guzti hau jada badakizue, baina ba al zenekiten baso mugarratzea edo *trasmoztea* bioaniztasuna ugartzen duen mozketa metodo bat ere bada? Eta metodo honi esker, hainbat intsektu mota daudela gurean, non, metodo hau gabe egongo ez zirenak?

Zuhaitz bat mugarratzea, hau gaztea denean goiko zatia moztean datza. Zuhaitzak, «eraso» honen aurrean erantzun bat izaten du eta mozte puntutik alboetara adarrak botatzen ditu zuzenean gorantz hazi beharrean. Handia egin ahala, gaztelu itxurako zuhaitz bat dugu, nahiko motza, alboetara L baten moduko adarrak ateratzen zaizkiona (antzina itsasontzien gila edo karena egiteko oso erabiliak), eta oso enbor zabalekoa.

Puntatik ere ateratzen zaizkio adarrak, meheagoak direnak, adar hauek moztu ezker, berriro ateratzen dira, egur emari konstante bat duen zuhaitz bizi bat sortuz! Egur emaila bikaina izateaz

gain, intsektu mordoien etxetxoa ere bada, izan ere, zuhaitz mota hauek joera handia dute enbor eta adarretan zuloak sortzeko. Zulo hauetatik milaka onddo sartzen zaizkio eta bere barneko zura pixkana lur beltz bikain bat bihurtzen dute, elikagai ugariakoa. Hementxe ipintzen dituzte milaka intsektu motek arrautzak, hauen artean, Rosalia alpina, Orein hegalarriak (gurean «mokotarroa» esaten zaiona), Osmoderma eremita... intsektu hauek Europa mailan legeak babestuak daude, beraz... argi!

Intsektu hauen arrautzetatik beldarra edo larba izeneko kumea aterako da, non, zuhaitz mugarratuaren barnean dagoen lur gozoaz elikatu eta 4-5 urteren bueltan, metamorfoosi batekin intsektu heldua bihurtuko den. Honek zuhaitz azalean zulotxo bat egin (hurrena mendira zoazenean begiratu), hegan irten, ugalduta, beste zuhaitz batean arrautzak ipini eta hilabete barruan hilko da, horrelakoxea da intsektuen bizitza!

Aranzadirekin praktikak egin nituen batean, uda osoa iragan nuen Aralarren gora eta behera zuhaitz mugarratu hauetatik intsektuen larbak ateratzen eta ikertzen. Ehunga ikerlari etorri dira gurera baso mugarratu hauek adoratzera, batez ere Ingaterratik, non bertan oso urriak diren baso mota hauek. Esaten dutenez, altxor bikain bat dugu gurean!

Mundu osotik datoz aspaldian etengabe mozten ari garen «zuhaitz oker eta zahar» hauek ikustera. Seguru nago, gaur arte gutako askok ez zekiela ezer gure altxor natural hauei buruz, lepoa jokatuko nuke natur-zientzietan ez dela gai hau irakatsi... ez al gara benetan xebebreak?

Xelebrekeria hauek eta gehiago [bioaniztasunetik.blogspot.com](http://bioaniztasunetik.blogspot.com), xebebrekeri hauek idazten dituenarekin kontaktuan jartzeko [bioaniztasunetik@hotmail.com](mailto:bioaniztasunetik@hotmail.com) eta xebebrekeriak modernoagoak izan daitezkeen, bila gaitzazu Facebook-en [www.facebook.com](http://www.facebook.com).

## → Laburrak

### Hitzaldia errespetuzko komunikazioari buruz

**IBARRA** › Uzturpe Ikastolako hitzaldia antolatu du etziraiko, osteguna, 0-5 urte bitarteko haurren gurasoei zuzendua. Nerea Mendizabal psikopedagogoa emango du *Errespetuzko komunikazioa: bizitzarako komunikazioa* izenburupean. Hitzaldia kultur etxean izango da, 18:00etan. Gaian interesa duen or hitzaldira gonbidatu du zuzendaritzak.

### Espezialitateen ambulatorioa hizketagai

**TOLOSA** › Zahartzaro duinaren aldeko plataformak batzar informatiboa antolatu du gaurko, 20:00etan, kultur etxean. «Tolosaldeko espezialitateen ambulatorioaren desagerraraztea eta honen pribatizazioaren inguruan» hitz egingo dute. «Iristen ari zaizkigun berriak, larritzeko modukoak dira», azaldu dute eta «saiakera hau geldituko duen herri mugimendua bultzatzea ezinbestekoa» dela. Plataformatik herritar guztiak parte hartzea gonbidatu dituzte.

## Herriko kirolariei omenaldia egin die Gazteluko Udalak

Herriko kirolariez gain, omenaldi hauen aitzindari izan zen Julian Goñi ere omendu zuten ekitaldian

### M. Ugartemendia Gaztelu

Herriko kirolariei eta Julian Goñiri omenaldia egin zioten gazteluarrek. Horretarako, urtarrilaren 30ean bi ekitaldi ospatu zituzten Gazteluko Udalak.

Alde batetik, zinegotzi zen Julian Goñiren bigarren urteurrena zela eta gogora ekarri nahi izan zuen «bere lanerako grina eta bere indarra». Herriko kirolariei ematen zaien ikurra Goñik banatzen zuela eta, berak hasitako lana «horez betetzen ari direla» ere gogorarazi nahi izan zuen udalak. Horregatik, aurtien bi ekitaldiak batera ospatu zituzten. Bigarren ekitaldia «herriko kirolarien lana eskertzea eta zoriontzia izan zen».

### 2010eko lorpenak

Honela, Gazteluko Udalak hainbat herritarrek urtean zehar egindako kirol saioetan lortu dituzten emaitzak ere gogorarazi nahi izan ditu. Herrian herri kirolen inguruan afizio handia dago,



Gazteluko herritarrek kirolariei eta Goñiri egindako omenaldian. HITZA

horren erakusle mota honetako txapelketetan eskuratutako lorpen guztiak. Nazioarteko nahiz Euskal Herriko hainbat sega txapelketetan parte hartu dute zenbait gazteluarrek, eta baita garaipe garrantzitsuak lortu ere. Yurre Olano, Joxe Gabirondo, Andres Etxeberria eta Andoni Goikoetxea dira txapelketetan parte hartu duten segalarriak. Azkenak, San Juanetako batel txapelketan bosgarren postua ere lortu zuen. Josune Gorostidi ere herri kirolean aritu da. Zehazki Euskal Herriko trontza eta eskol txapelketetan, lehen eta bigarren postuak lortuz, hurrenez hurren.

Ramontxo Otegik estatu mailako nahiz Euskal Herriko maratoi eta mendi lasterketan hainbat sari eskuratu ditu. Mikel Beloso pilotariak, Gipuzkoako buruz buruko txapelketa irabazi zuen. Eta, azkenik, Jon Goikoetxea Hego Ameriketako Akonkagua mendiko gailurrera igo zen eta 7 Kontinenteko proiektuaren amaieran izan zen.

Gazteluko Udalak kirolariei egindako omenaldian «jende ugari bildu zen» eta ondoren hamaitzeko bat egin zuten. Horregatik, Kultur Batzordeak «mila esker» eman nahi dizkiete hurbildu ziren guztiak.

## Presoek «giza eskubideak» dituztela gogorarazi du Romeok

Eusko Legebiltzarrak presoaren familien laguntzen inguruan egindako eskakizunei erantzun die Romeok

### Erredakzioa Ibarra

Eusko Legebiltzarrak euskal presoaren senideei bideratutako diru laguntzak baliogabetzeko eskatu zion Ibarra Udalari lehengo astean. Hori egin ezean Espainiako Gobernuari laguntza hauei hellegitea aurkezteko ere eskatu zuten. Erabaki hau dela eta Txelo Romeo, Ibarra alkateak, preso bat gizaki bat dela eta beraz, giza eskubideak dituela gogorarazi nahi izan du, egin duen delitua edozein delarik ere.

Presoen familiari emandako laguntzek «presoren bizitza gizatiarragoa egitea eta bere bersozializazioa laguntzea» ditu helburu. Izan ere, «presoa familiaren inguruetik urrunduta, honen eskubideen aurka egiten da. Pre-

soa eta familia bera ere zigortzen dutelarik». Bestalde, PPK ETAKo presoiei buruz hitz egiten duen arren, Txelo Romeok dio Ibarra Udalak hartutako erabakiak «senideren bat preso duten ibarbar guztiak laguntzeko» direla, «presoak ETAKoak izan ala ez».

Ordenantza honen laguntzak jaso ahal izateko presoek nahiz senideek Ibarra erroldatuta egon behar dute, laguntza eskatu baino hiru urte lehenagotik.

Ez da egia Ibarra Udalak legegaren kontra jokatzen duela. Alderantz, «tokian tokiko erakundeek dagokie presoaren senitartekoei laguntza sozial hauek ematea».

Beharra duten herritarrekin solidaritatean hartutako erabaki politiko hau dela eta, Romeok esan du «mota honetako neurriak babesten» dituela eta beharrezkoa den bitartean babesten» jarraituko duela.

Euskal gizarteak kontutan hartu behar baitu presoaren eta hauen senitartekoen «sufirimendua», eta «ezin dio bizkar eman errealtate honi».

### Garai berriak

Euskadiren historian garai berri batera iristen ari gara, eta Romeok oraindik «bide luze bat» gerozen dela dio, baina «denon artean» egin beharreko bidea dela dio, bakea duen herri bat sortu nahi bada, politikoki normalizatua eta sozialki adiskidetu den herria, alegia.

Romeo ziur dago udalak presoari eta hauen senitartekoei emandako laguntzek «zauriak sendatzen» eta «euskal gizarteak hainbeste desio duen bakea lortzen» lagunduko dutela. Neurri hauek hartzea, ez baitu esan nahi indarkeria edo bake falta jasan duten pertsonak ahazten direnik. Are gehiago, ez du esan nahi gatazka konpontzeko bide bezala indarkeria babesten dutenik. Preso batek dituen giza eskubideak errespetatu nahi ditu Ibarra Udalak.

Beraz, euskal gizartearen bakea lortzeko beharrezkoak diren erabakiak «babesten» jarraituko du Ibarra alkateak den Txelo Romeok.

Arrate Plazaola • Onkologoa

# «Egun bularra mantentzea askoz errazagoa da»

Imanol Garcia Alegia

Arrate Plazaola (Donostia, 1955) onkologia zerbitzuko burua da Onkologikoan eta gaur bularreko minbiziaren inguruko hitzaldia emango du, 17:00etan, Alegiako kultur etxean. Tolosaldean beste hainbat herritan eman du dagoneko hitzaldia eta aurrerago beste batzuetan ere emango du.

## Zer dela eta antolatzen dira hitzaldi hauek?

Kattalin elkarteak antolatzen ditu hitzaldi hauek, Osakidetza egiten duen bularreko minbiziaren diagnostiko goiztiarra egiteko bultzatzen duen deialdiarekin bat eginez. 50 urtetik 69 urte bitarteko emakumezkoen gonbidatzen die mamografia egitera. Kronograma horrekin lotuta hitzaldiak bultzatzen ditu.

## Mamografia horiek non egiten dira?

Denak Donostian egiten dira. Onkologikoak berak egiten ditu bai hirian bertan duen bulego batean bai ospitalean.

## Hitzaldian zer motatako informazioa ematen duzu?

Orokorra izaten da. Zer den bularreko minbizia, zein diren arrisku faktoreak, nola egiten den mamografia, nola astebetere buruan deitu egiten zaion mamografia ez bada ondo atera edo zerbait arrotza ikusi bada berriro egiteko. Hortik aurrera diagnostikoa ateratzen da. Gaur egun diagnostikoa X izpien zerbitzuan egiten da. Lehen ebakuntza baten bitartez egiten zen diagnostikoa eta egun puntzio batekin egiten da X izpien edozein zerbitzutan.

## Garrantzitsua da diagnostiko goiztiarra egitea?

Jendea mamografia egitera animatzen dugu. Minbizi honetan diagnostiko goiztiarra egitea badago. Zenbat eta azkarrago diagnostikatu, sendatzeko aukera askoz handiagoak dira. Horrelako programei esker tumore milime-



HITZA

triakoak ikusten ditugu, lau edo bost milimetrokoak. Ziurrenik kasu horietan kentzearekin bakarrik osaketa lortu daiteke. Eta gainera ez da behar ebakuntza agresiborik horretarako. Nahikoa izango da ziurrenik ebakuntza mugatu batekin, bularra kontserbatuz. Egun bularra mantentzea askoz errazagoa da.

## Prebentzioaren inguruan aholku batzuk emango dituzu?

Emakumeek zerbait detektatuz gero kontsultatu dezatela lehenbailehen. Ez da bakarrik koskorra ukitzearen kontua. Izan daiteke bularrean gertatzen diren beste aldaketa, tenkatasuna, titi puntak barrura sartzea... Edozein sintoma izan daiteke eta jendea iriomeni zaio hori gertatzen den meentoan kontsultatzea.

## Hitzaldietara joaten direnek zer galdetzen dute?

Komunikabideetan ematen diren aholkuak benetan egiazkoak diren edo ez galdetzen dute. Jendea gehienetan nahiko parte-hartzaile izaten da eta giro ona sortzen da hitzaldietan.

## Emakumeen zein kopururi diagnostikatzeko bularreko minbiziak?

Zortzi emakumetatik bati bularreko minbizi izatea tokatuko zaio.



Andia elkartekoak prentsaurrekoa eman zuten atzo, ondoan garai bateko soldaduz jantzitakoak zituztela. I. URKIZU

# Tolosan 1813an izan zen bataila gogoratuko dute alarde baten bidez

Andia kultur elkartea eta Tolosako Udala dira antolatzaileak; ekainaren 12an egingo dute ekitaldia

## Erredakzioa

1813an Tolosan 45.000 soldaduk parte hartu zuten frantses tropen eta hainbat herrialdeetako ingelesak, espainiarrak, portugaldarrak, italiarrak eta alemaniarrak, besteak beste—gerlariek osatutako armadaren arteko batailan. Armada horretan gipuzkoarrak ere egon ziren. Gertaera hori gogoratzeko alardea antzeztuko dute herrian ekainaren 12an, Andia kultur elkartek eta udalak antolatuta. Garai horretan frantsesek Tolosa hartuta zuten eta bataila gertatu aurretik, bost urtetan zehar jendarmeria izan zuen bertan.

Alardean ehun lagunek parte

hartuko dute, horietatik 60 tolosarrak, frantses eta ingeles uniformeekin eta garai hartako armekin. Tolosako parte-hartzaileak eskopetari konpainietatik aukeratuko dira. Bestalde, bi kanoi ere erabiliko dituzte, bakoitza hiru artillerorekin. Lehenbizi herriko kaleetatik desfilea egingo dute parte-hartzaile guztiek eta gero bataila irudikatuko dute Nafarroako zubian. Tolosako Musika Bandak protagonismoa izango du, Beethovenen *Vitoriako bataila* pieza joko baitu alardea egiten ari diren bitartean. Jose Maria Tuduri Esnal da alardearen koreografia eta alde artistikoa zuzenduko duena.

## Hurrengo urteei begira

Andia kultur elkartetik azaldu dutenez, ekitaldi horrek jarraipena izatea nahi dute hurrengo urteetan eta sanjoanetako festetan bere lekua izatea. «Lehen urteko ospakizunak ekitaldi gutxi izango ditu kostuak ez daitezzen han-

diegiak izan, baina hurrengo urteetan, eskarmentua eta jendearen harrera kontuan izanik, emankizun gehiago atxiki daitezke: antzerkia, koreografia, partaide gehiago, ...», azaldu zuten atzo egindako prentsaurrekoan.

Hain justu, 2013an Napoleonen kontrako gerraren bukaeraren bigarren mendeurrena beteko da eta Hegoaldeko nahiz Iparraldeko hainbat elkartek urteurrena ospatuko dute, desfileak eginez edo bestelako herri-emankizunekin. Ospakizun horiekin bat egiten dutela azaldu dute Andiakok.

Alardea egin aurretik, aurreko astean, bi hitzaldi emango dituzte Andia elkarteko kideek. «Independentziako gerra eta frantse- sen okupazioa Tolosan» gaien inguruan ariko dira. Hitzaldietan parte hartuko dute Ramon Labaienek, Juan Agirrek eta Jose Antonio Rekondok.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Apartamentua.** Jaka erdigunean, altzariz guztiz hornituriko apartamentua salgai. Garaje eta trastelekuarekin. Interesatuak deitu 667 49 25 57 telefono zenbakira.

### ALOKAGAI

■ **Ileapaindegia.** Alegian ileapaindegi bat alokatzen da. Interesatuak deitu 665 70 82 08 telefono zenbakira.



## Tolosako Udala

### IRAGARKIA

Tolosako Udalbatzak, 2011ko urtarrilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, onartu zituen Uzturre Asistentzia Zentroan adineko autonomoentzako egindako apartamentu balioaniztunak adjudikatzeko oinarriak, jendaurreko egiten da eskabideak aurkezteko deialdia:

- Helburua: Uzturre Asistentzia Zentroan adineko autonomoentzako egindako apartamentu balioaniztunen adjudikazioa.

- Eskabideak aurkezteko epea: martxoaren 4a arte (hau ere barne).

- Informazioa: eskabide eredu eta dokumentazioa ondorengo lekuetan dituzte interesatuak:

- Udalaren web gunean: tolosakoudala.net.
- Udalteko Erregistroan

Tolosan, 2011ko otsailaren 4an  
Alkateta



## Tolosako Udala

### IRAGARKIA

Gobernu Batzarrak, 2011ko urtarrilaren 31an egindako bilera hurrengo proiektua hasiera batez onestea erabaki zuen:

“15.3 Kondeaneko Aldapa 11” azpiesparruko xehetasun azterlanaren proiektua.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskadiko Lurzuruari eta Hirigintzari buruzkoak, 98. artikuluan ezarritakoaren arabera, espediente HOGEI EGUNEz jendaurrean jarrita egingo da.

Espediente jendaurrean jartzeko arrazoiak hau da: nahi duenak bere interesen alde egoki iruditzen zaizkion erreklamazioak aurkezteko aukera ematea.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Diario Vascon, Tolosaldeko Hitza eta Noticias de Gipuzko argitaratuko da. Aurrean aipatu den epea argitalpen horietako azken iragarpena kalateru eta bihararumetik hasiko da kontatzen.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espediente Tolosako Udalteko Hirigintza Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-8 eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkezteko dira alkate-lehendakariari zuzenduta.

Tolosan, 2011ko otsailaren 7an.  
ALKATEA.



**Kirolak**

↓ **Emaitzak**

<b>PILOTA</b>		Gure Txokoa	22
<b>BINAKAKO TXAPELKETA</b>		Arratibel-Labaka (A-S)	7
<b>Lehen maila</b>			
Xala-Barriola	21	Buruzgain	8
Bengoetxea VI-Patxi Ruiz	22	X. Urbietea-Zubiri (A-S)	22
<b>*****Hurrengo Jardunaldia</b>			
<b>Olaizola I-Beloki</b>			
Irujo-Merino II	22	Berriotxo	7
Olaizola I-Beloki	4	Narbarte-Telletxea (A-S)	22
<b>SASKIBALOIA</b>			
<b>LEHEN MAILA</b>			
<b>17. jardunaldia</b>			
Fundacion Baskonia	100		
Take Bide Bide Ibiza	97		
<b>Sailkapena</b>			
1. Fundacion Baskonia (13-4);			
<b>7. Bide Bide Ibiza (7-10).</b>			
<b>FUTBOLA</b>			
<b>ERREGIONAL OHOREZKO</b>			
<b>MAILA</b>			
<b>22. jardunaldia</b>			
Bergara	0		
Tolosa	1		
<b>Sailkapena</b>			
1. Hernani (48 puntu)			
<b>8. Tolosa (32 puntu)</b>			
<b>ARETO FUTBOLA</b>			
<b>NAZIONAL A MAILA</b>			
<b>18. jardunaldia</b>			
Atenea Ikusnet	5		
Lauburu Ibarra	1		
<b>Sailkapena</b>			
1. Zierbana (46 puntu);			
<b>5. Ibarra (28 puntu)</b>			
<b>NAZIONAL B MAILA</b>			
<b>18. jardunaldia</b>			
Laskorain Ikastola	1		
La Bellota	3		
Elorrio	5		
Irish Pub Sheperd	1		
Transportes Lakunza	3		
Bilbo	3		
<b>Sailkapena</b>			
<b>2. Laskorain (41 puntu); 9. Trs. Lakunza (24 puntu); 12. Irish Pub Shepherd (17 puntu)</b>			
<b>EUSKADIKO TXAPELKETA</b>			
<b>Zazpi Iturri</b>			
Barandiaran (A-Saiaz)	5		
<b>Oberena</b>			
Mugika (Aurrera Saiaz)	22		
<b>Lemoa</b>			
Biaín (Aurrera Saiaz)	14		
<b>Adiskide</b>			
Mugika-Iruretagoiena	22		
<b>Adiskide</b>			
Labaka-Elustondo (A-S)	5		
<b>Adiskide</b>			
Sukia-Otaegi (A-Saiaz)	12		

# Laskorain ikastolak bigarren jarraitzen du, etxean galdu arren

Lehen sailkatuaren porrotak eta hirugarrenaren berdinketak bekoki ilunak argitu zituzten

**Iñaki Egizabal** Tolosa

Oraindik ere aurkari guztiak aho zabalik uzten dituen Usabal dotorean, Laskorainek zazpi garaipen eta berdinketa bat zeramatzan aurtengo denboraldian. Txapelketako areririk arriskutsuenen bisita jasota jadanik, arratsa bikain honek beste astebetetz jarraituko zuenaren itxaropenarekin bildu ziren joan den larunbatean jokalarik eta zale horitxoak, baina oraingoan ezustekoa izan genuen albiste.

Etxekeoan baja garrantzitsuak probestuaz -Javi entrenatzaileaz gain, baja izan baitziren Murgi, Telleria, Illunbe eta Elola-, Legazpiko La Bellotakoek urrearen balioa duten hiru puntu poltsikoratu zituzten, jaitsiera sailhesteko lehiazten ari diren borroka partikularrean oso premiazkoak zituztenak. 1 eta 3 izan zen azken emaitza.

**Talde goleatzaileena, ezinean**  
Partidak ez zuen historia handiegirik izan, etxekeoan etsipenerako joko dinamikak ez baitzuen inolako aldaketarik izan 40 minututan zehar.

Bi taldeak sendo agertu ziren defentsa zonaldean, atezainek ederki ebatzi zituztelarik sorturiko gol aukera bakanak -bikain berriro ere Endika-, eta baloiaren jabetza ikastolakoena izan bazen ere, joko posizionalean ez zuten

beste jardunaldietako etorririk izan.

Atsedendititik bueltan Barriolak eginiko 1-0ekoak ere ez zuen zoritxarrez dinamika mutaziorik sortarazi eta ligako talderik goleatzaileenak ez zuen beste golik sartuko. Legazpiarrek aldi, albo-ko sake batean, buruz, banakoa egin zuten. Jokaldi bitxia eta jada azken minutuan beste bi gol; laskoraindarrek atezain jokalaria atera baitzuten berdinketa garaipen ala porrot bategatik trukatzeko asmotan. Puntu bakarra ez zen nahikoa eta hiru punturako beste biderik ez zen antzematen.

Azpimarratu bukatu aitzinetik, lehen aipaturiko bajen hutsunea estaliaz larunbatean Iturralde gazteak egin zuen debuta, nazional mailan. Harrobi horitxoaren ekoizpen, filialeko

golegile nagusi, mutil honek etorkizunean ibilbide oparoa izango duela agertarazi zuen, maila berriko erritmoari ederki eutsiaz eta mugimenduetan dinamismo handia duela frogatuaz. Bejondeizula Josu!

Laskoraindarren bekoki ilunak zertxobait argitu ziren dutxatik irteterakoan, Concepto lide-rrak 6-1 galdu eta Bilbo hirugarren sailkatuak hiruna berdindu zutela jakitean.

San Blas ondorengo egun eguzkitsu arraro hauek ezinbestean ez ohiko jardunaldia ekarri digute. Usabalen Javi delegatua, Alonso entrenatzailea eta Endika, Gil, Barriola, Saldias, Iturralde -bosteko titularra-, Otxoa, Zubillaga, Txiki eta Urko jokalaria izan ziren.

● tolosa.hitza.info



Laskorainek denboraldiko lehen partida galdu du Usabalen. HITZA

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN BALIOA Txina Inperiala**

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neuniko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
902 402 900  
www.funerariavascongada.com

## Anjel Arrospidek final berri bat jokatu du urrezko mailan

Floren Nazabal eta Arkaitz Jauregi kanpoan utzi dituzte Arrospide eta Mugerza II.ak, 20 segundoko aldeaz

**Asier Imaz** Leaburu-Txarama

Anjel Arrospideren ibiliak ez du etenik. Leaburuko aizkolariak final berri baterako txartela lortu zuen asteburuan, Munitibarren. Binakako txapelketaren urrezko mailan, Arrospidek Mugerza II. arekin osatzen du bikotea eta argi dago gustuko duela ebakera desberdineko lehia hau. Aizkolariak sei ariketa desberdin egin behar izaten dituzte, eta iraupenak baino trebetasunak du garrantzia. Kasu horretan, leaburuarra maisua da eta zutikako enborrean onena ez baldin bada hobere-netakoa.

Kontuak horrela, asteburu ho-

netan Arrospidek eta Mugerza II.ak finalerdia jokatu behar zuten Munitibarren. Aurrean Floren Nazabal eta Arkaitz Jauregi zeuden. Lehia oso gogorra izan zen eta finalerako txartela 20 segundoren bueltan erabaki zen.

Anjel Arrospidek eta Ugaitz Mugerzak lan guztiak 21:46ko denborarekin amaitu zituzten. Floren Nazabalek eta Arkaitz Jauregik berriz, lan bera egiteko 22:06 segundo behar izan zituzten. Ondorioz, lehen bikoteak, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan jokatu den finalean egoteko aukera lortu zuten. Urrezko mailako azken lehia hau otsailaren 27an jokatu da.

Bigarren finalerdia asteburu honetan jokatu da Espejon, Araban. Alde batetik, iazko txapelkunak egongo dira, hau da, Donato eta Oihan Larretxea. Bestetik, txapelketa bikaina egiten ari diren bi aizkolari indartsu, Inaki Azurmendi eta Aitzol Atu-

txa. Igandean erabakiko da bigarren bikote finalista nor izango den.

### Zilarrezko finala

Urrezko mailan ez bezala, zilarrezkoan finala nortzuk jokatu duten erabakita aurkitzen da. Alde batetik, Dorronsoro eta Mugerza III.a eta bestetik, asteburuan txartela lortu ondoren, Manu eta Julen Kañameres. Azken hauek Juan eta Jon Rodriguez utzi zituzten azken lehiatik at.



Anjel Arrospide. HITZA



Ander Altuna eta Odei Gil txirrindulariak. HITZA

## Pista estalian Altuna eta Gil maila bikainean ibili dira

Zizurkildarra eta asteasuara Tafallan izan dira asteburuan; Irrintzi taldean hasi ziren txirrindularitzan

**A. Imaz**

Tafallako Miguel Indurain belodromoan pista estaliko txirrindulari lasterketak jokatu dira asteburuan. Bertan, eskualdeko bi gaztetxo aritu dira lehian, hain zuzen ere, III. Goal Cat Open-arian.

Zizurkilgo Ander Altuna eta Asteasuako Odei Gil Migueliz Jira-Bira Sleave Metta-Carbon taldeko kideak dira; Villabonako Irrintzi taldean hasitako txirrindulariak biak. Tafallan maila handia erakutsi dute eta UCI mailan dagoen Cespa Euskadi taldekoak estu-

hartu zituzten eskualdeko gazte hauek.

Lasterketa hasi aurretik, Cespa Euskadi taldeko txirrindulariak lehen postu guztietan egongo zirela zirudien. Alde batetik, taldea bost kide indartsu osatzen zutelako eta bestetik, helduagoak zirelako. Hala eta guztiz ere, Altunak eta Gilek ezustekoa eman zuten. Lehenik, lasterketan erakutsi zuten ausardiagatik eta azkenik, sailkapenean lortu zuten postuagatik.

Abraham Olano anoetarra ikusleen artean zela, ondoren sariak banatzen ibili zen. Altunak eta Gilek hirugarren eta laugarren postuak lortu zituzten.

Villabonako Irrintzi taldeak bi txirrindulariak zoriandu dituzte eta maila honetan lehen urtea besterik ez dutela gogorarazi nahi izan dute. Aurrera begira, animoak eman dizkiete.

## Asier Olaizolak hiru hilabete geldirik pasa beharko ditu

Larunbateko partidaren hartu zuen eskuin belaunean; atzo egin zioten erresonantzia magnetikoa

**Erredakzioa**

Asteburuko albisterik txarrena, zalantzarik gabe, Asier Olaizolaren lesioa izan da. Irujo-Merino II.aren aurkako lehian, Olaizola Lak min hartu zuen. Ondorioz, Asier Olaizolak ezingo du jokatu Binakako Txapelketako hurrengo jardunaldietan. Atzo egin zioten erresonantzia magnetikoa Leitzan bizi den goizueta-rrari eta, gutxienez, hurrengo hiru hilabeteetan ezingo duela jokatu esan zioten medikuek.

Eskuin belauneko aurreko lotailu gurutzatzen du min Olaizola I.ak, eta haustura zenbatekoa den ez dakiten arren, agur esan beharko dio txapelketari. Atzo arratsaldean, beste froga bat egitekoak ziren Mikel Sanchez medikuarekin Gasteizen.



Asier Olaizola. HITZA

### Gazteak Euskadiko ligan

Zazpi Iturri taldeko pilotariak Euskal ligaren azken zatian aurkitzen dira. Zazpigarren jardunaldiko lehiak jokatu zituzten asteburuan Amezketan eta lautik lau partida irabazi zituzten.

Eskuz banaka kadeteetan, Irribarriak (Zazpi iturri) 18 eta 8 irabazi zion Alduntzini (Zugarralde). Eskuz banaka gazteetan, Jakak (Zazpi iturri) erraz menderatu zuen Barandiarain (Aurrera Saiaz), 22-3ko emaitzarekin. Eskuz binaka, 22 urte azpiko kategorian, Zazpi iturriko Gallurralde-Arzelus bikoteak 10ean utzi zituzten Oberenakoak, hau da, Arraiza-Etxamendi.

Azkenik, binakako lehiak jarraraituz, Altuna-Otamendi 22-8 nagusitu ziren Egiguren-Murgaren aurka, kadeteen mailan.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza**  
bertako egunkaria

egin zaitze harpidedun!

**902-82 02 01**

(Asteegunetan 09:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Arabara etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31800 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N.A.:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibaraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Donelutxiko neskak gailendu dira Beterriko txapelketan

Hamahiru bozken aldearekin lortu zuten Donelutxi taldekoek Donelontxoko irabaztea

**Erredakzioa** Villabona

Villabonako Behar Zana elkarteak lepo bete zen larunbat gauean Beterriko IV. Bertsolari Txapelketako finala ikusteko. Bi talde aritu ziren aurrez aurre: Uxue Alberdik, Ainhoa Agirreazaldegik eta Onintza Enbeitak osatutako Donelutxi eta Ander Lizarralderen, Jokin Labayenen eta Unai Muñozaren Donelontxo. 140 lagunek jarraitu zuten zuzenean laugarren urtez Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatutako txapelketako finala.

### Mozorroturik

Finalean ere mozorroturik egon ziren bertsolariak. Donelutxiko neskak mexikarrez jantzita zeudela hasi zuten saioa eta Donelontxokoek aldi, munduko inprobisatzaileen mini txapelketa antzeztea erabaki zuten, Julien Iantzi ETBko aurkezlearen laguntza eta guzti.

Afalostean hasi zen Amaia Agirre bertsolariak gidatutako finala. Donelutxi taldekoak izan ziren agurra kantatzen lehenak mexikar emakumeen janzkera tradizionalerantz mozorroturik. Pistolaz tiro eginez azaldu ziren elkarrean zalditxoaren gainean eta bertan, bertso agur umoretsua egin zuten korridoak eta bestelakoak kantatuz. Oso fin ibili ziren eta zaletuak barrez lehertu zorian egon ziren. Donelontxo taldekoak, bai-

na, ez ziren atzean geratu eta agurrean Jokin Labayenek Julian lantzirena egin zuen, primeran egin ere, eta bi talde aurkeztu zituen: batetik, inprobisatzaile palestinar bat -Ander Lizarralde- eta bere itzultzailea -Unai Muñoz- eta, bestetik, Jon Sarasua -Unai Muñoz- eta Carlos Aceves inprobisatzaile latinoak -Ander Lizarralde-. Ikus-entzuleak barrengar batean jarri zituzten bertsolarien ateraldi eta imintzio guztiak.

Behin agurra kantatu ondoren,

giroa gori-gori zegoen, eta ikus-entzuleek umoretik gehiago nahi zuten. Sei bertsolariak aukera izan zuten hortik aurrerako ariketa guztietan umorez eta kalitate handiko bertsokeraz jarduteko. Amaierara iristerako, ez zegoen batere garbi nork irabazteaz zela eta txapelketa eta bozketaren emaitzen zain egon ziren ikus-entzule guztiak.

Bi taldeek agur umoretsuak kantatuz eman zioten bukaera Beterriko IV. Bertsolari Txapelketari.



Neskak mexikarrez jantzita atera ziren, eta mutilek inprobisatzaileen mini txapelketa antzeztu zuten Julien Iantzi aurkezlearen laguntzarekin. HITZA

### Agenda

#### DEIALDIK

■ **Tolosa.** Herriko anbulategiaren balizko itxieraren inguruko bilera irekia egingo dute gaur Zahartzaro Duinaren Aldeko Plataformako kideek 20:00etan kultur etxean. «Tolosan osasun zerbitzuak pribatizatzeke egiten ari diren saiakeraren» aurrean «herri mugimendua» sortu asmoz herriko eragile, norbanako zein alderdi politikoko guztiei egiten diete dei bileran parte hartzeko.

■ **Ibarra.** Udaleko Kirol sailak ireki du 2011 urterako Kirol Jardueretarako diru laguntzak eskatzeko epea. Eskeraurteko azken eguna martxoaren 15a izango da. Oinarriak nahiz aurkeztu beharreko agiriak webgunean eskuratu daitezke ([www.ibarrakoudala.net](http://www.ibarrakoudala.net)) batetik, eta bestetik, kiroldegiko bulegoetan ere eskatu ahal dira 08:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 22:00etara.

■ **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago. Lehiaketan parte hartu nahi duenak izena eman dezake bai kultur etxean eta baita helbide honetan [www.tolosakoudala.org/inauteriak/](http://www.tolosakoudala.org/inauteriak/).

■ **Tolosa.** Martxoaren 4a bitarte (egun hau barne) eskatu daitezke Uzturre Asistentzia Zentroko apartamentu balioaniztasunak eskuratzeko eskaerak. Eskabide eredu eta dokumentazioa Tolosako Udaleren webgunean nahiz udaletxeko erregistroan eskuratu ahal dira.

■ **Tolosa.** Tolosaldea Garatzene eta Tolosako Udalak enplegua sustatzeko antolatutako egitasmoaren barne bi ikastaro antolatu dituzte langabetuentzako: sukaldaritza laguntzailearena eta planoen interpreta-

zioarena. Izena Tolosaldea Garatzenean eman behar da eta azken eguna ostirala, hilak 18, izango da.

#### ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Jeiki, jeiki erakusketak Aranburu jauregian martxoaren 20a bitarte.

■ **Tolosa.** Wayang Goleken Indonesiako txotxongiloak ikusi daitezke martxoaren 13a bitarte TOPIC-en.

■ **Tolosa.** GKO galerian Mixmedia erakusketak ikusi daitezke apirilaren 2a bitarte.

#### Farmaziak

#### GAUR

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.  
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

#### Agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**agurrak**



## PILAR GOYA ESTETIKA ZENTROA



Errota 2, behea • Villabona  
Tel.: 943 69 13 66

- Diodo laserra (gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat)
- Aurpegi-tratamendua
- Zimurren betegarri-tratamendua ama zelulekin:
- Urrezko xafak
- Azalaren aholkularitza doan
- Oinen eta eskuen tratamendu eta edertasuna (irraupen luzeko esmalteak)
- Solarium bertikala, 10 minutu
- Solarium horizontala, 20 minutu
- Bainuen aurrekontua eskatu
- Depilazioa erabilera bakarrek argizariarekin